

# AZPEITIKO GARRAIO PUBLIKOA



Jarduera honen helburua Azpeitiko egungo Garraio Publikoaren diagnostikoa egitea eta hobekuntza neurriak proposatzea da.

Horretarako DBH 2. zikloko ikasleek egin beharreko lana ondorengo ataletan oinarrituko da :

1- Gaur egungo garraio publikoaren eskaintza aztertzea. Horretarako gela bakoitzeko ikasleek taldetan banaturik guk emango diegun plantilla bete beharko dute. Informazio- bilketa 3 egunetan zehar eta 4 geltoki desberdinetan (Loiola, Igerilekua, Anbulategia, Trenaren museoa) egingo da. Orduak ere geuk finkatuko ditugu (8:30/11:30/18:00) Ondoren gelako taldeek lortutako datuak bateratuko dituzte eta grafikoetan islatu.

2- Azpeitiko bizilagunek zein garraio publiko behar duten zehaztea. Informazio hau lortzeko geuk emango diegun galdeketa erabil dezakete, edota bere galdeketa propioa sortu.



Eskolako Agenda 21

DBH2. zikloa





# AZPEITIKO GARRAIO PUBLIKOA

3- Beraiek bildutako datuen eta DBH 1. zikloko ikasleek bildutako datuen arteko konparaketa egitea honako puntuetan oinarrituz:

- Zenbat garraio publiko (autobus edota tren) behar da autoen %10a kentzeko?

.....

- Zein dira auto pribatuen erabiltzaileek dituzten arrazoiak garraio publikoa ez erabiltzeko?

.....

.....

- Zeintzuk dira hauen ibilbide, helmuga eta ordu nagusiak?

.....

.....

.....

- Zein da hauen kostua:

- Gordina
- Km-ko
- Autoa garestia goa ala merkeagoa



Hobekuntza proposamenak: egindako lanaren emaitzak kontuan hartuta eta hausnarketa prozesu baten ondoren - Zure udalerriko agintariei zein neurri proposatuko zenizkioke Azpeitiko eta oro har eskualdeko garraio publikoa sustatzeko.



# AZPEITIKO GARRAIO PUBLIKOA



Eskolako Agenda 21

AZPEITIKO GARRAIO PUBLIKOARI BURUZKO GALDETEGIA (DBH.2. zikloa)

Sexua:  gizonezkoa  emakumezkoa  
Adina:  20 bitartekoa  20-40  40-65  65-90

1- Erabiltzen al duzu garraio publikoa?

- Bai
- Ez
- Batzuetan

2- Erabiltzen ez baduzu, zergatik?

- Ez da egokitzen neure ordutegira
- Ez da egokitzen neure ibilbidera
- Erosoagoa zait kotxez mugitzea
- Besteak (zehaztu)

3- Baloratu letik 5era Azpeitiko gaur egungo garraio publikoaren alderdi hauek, kontuan izanda 5 dela puntuazio handiena eta 1 txikiena:

- Linea kopurua.....
- Linea arteko loturak.....
- Maiztasuna.....
- Geltokien egokitasuna.....
- Eserlekuen erabilgarritasuna.....
- Autobusen erosotasuna.....
- Sarbide fisikoa.....
- Garbitasuna.....
- Salneurria /Lurraldebus txartela.....
- Puntualtasuna.....
- Bidaiko segurtasuna.....
- Ordutegien informazioa.....
- Ibilbideen informazioa.....
- Pertsonalaren tratua.....

4- Nola hobetu daiteke martxan dagoen garraio publiko zerbitzua?

- Linea desberdinen maiztasuna handituz.....
- Geltokiak ugarituz.....
- Zerbitzu bakoitzeko ibilgailu kopurua handituz.....
- Ibilgailuak berrituz.....
- Bonoak eskainiz.....
- Besteak (zehaztu).....

DBH2. zikloa





# AZPEITIKO GARRAIO PUBLIKOA

## AZPEITIKO GARRAIO PUBLIKOARI BURUZKO GALDETEGIA (DBH.2. zikloa)

- 5- Zer falta da zure ustez herriko garraio publikoaren zerbitzu-mapa osatzeko?
- Herri barruko ibilbidea
  - Herriko auzoetara (Matxinbenta, Oñatz, Urrestilla, Nuarbe) garraioa ezartzea.
  - Inguruko herrietara (Beizama, Errezil) garraioa ezartzea
  - Poligono industrialetara zerbitzua
  - Merkatal-gune handietara (Maxi-Eroski, Lidl) zerbitzua
  - Beste herri/hiri batzuekin lotura (zehaztu)
  - Besteak (zehaztu)

- 6- Egungo Azpeitiko garraio publikoaren zerbitzua autobusean oinarritzen da. Herriko mugikortasun premiak, eta aldi berean herriko kokapena eta historia kontuan hartuta, nabaritzen al duzu Azpeitian trena berreskuratzeko beharrik?
- Bai
  - Ez

Zergatik? .....

---



---



---



---

(Erantzuna baiezkoa bada):

- 7- Zein onura ekarriko lizkioke herriko mugikortasunari?
- Erabiltzaileentzat garraio aukerak zabaltzea
  - Garraio pribatua murriztea
  - Besteak (zehaztu)

- 8- Azpeitian edukiz gero, prest egongo al zinateke ondorengo garraiobideak erabiltzeko?

- |  |                              |                             |
|--|------------------------------|-----------------------------|
| <input type="checkbox"/> Bizikleta publikoak | <input type="checkbox"/> bai | <input type="checkbox"/> ez |
| <input type="checkbox"/> Tranbia             | <input type="checkbox"/> bai | <input type="checkbox"/> ez |